

24 zenbakia  
2017ko abendua

# bai

ziurtagiridunen  
aldizkaria

**Isabel Larrakoetxea**  
Bizkaiko Industria Ingeniarien  
Elkargo Ofiziala

Emakumeen ikusgarritasuna enpresetan

**Mireia de Diego**  
De Diego S.L.

Rober Gutiérrez  
[zuzendaria]  
@robergutierrez



# Aukera baliatzen asmatu

Euskaraldia aurkeztu da, hizkuntza ohi-  
turetan eragin eta euskararen erabilera  
areagotzeko ekimena. Herritar euskal-  
tzaleak aktibatu nahi dira, hizkuntza ohi-  
turak aldatzeko. Hizkuntzaren erabilerari  
lotutako ekimena da, euskaraz hitz egiten  
dakitenek edota euskara ulertzeko gaita-  
suna daukatenek euskara erabil dezaten  
lortzeko. Halaber, era guztietako entita-  
teak euskarazko hizkuntza praktikak ba-  
besteko neurriak hartzea bultzatu nahi  
dira.

Zenbait kontzeptu nabarmentzen ari  
dira egun hauetako adierazpenetan: **ilu-  
sioa, elkarlana, batasuna, indarra, konpli-  
zitatea...** Ematen du, beraz, aurrera egite-  
ko baldintza egokiak egon daitezkeela eta  
aukera baliatu behar dugula.

Garrantzitsua da, askotan nabarmendu  
izan dugun bezala, **pertsona aktiboaren**  
rola: lehenengo hitza euskaraz eginez,  
ulertzen dutenekin euskaraz arituz, eus-  
karazko hizkuntza praktikak bultzatuz.  
Baina **espazioak ere behar** ditugu: ai-  
sialdia, lantokia, harreman komertzialak,  
ziberespazioa... Gaia eta kezka azaldu  
eta partekatu behar ditugu. Oraindik ere  
azaldu behar izaten baitugu zein garran-  
tzizkoa den guretzat espazio guztietan  
euskaraz aritzea, euskara hizkuntza bizia  
izango bada. Eta horretarako, **aldaketa  
soziala eragiten lagunduko duten per-  
sona aktiboak beharrezkoak dira.**

Bestalde, oihartzun handia lortzen ari  
da ekimena, argazki berria ekarri duelako.  
Ezohiko batasunaren irudia proiektu baten  
inguruan, Euskal Herri osoko erakundeak  
– Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gober-  
nua, Euskal Elkargoa, foru aldundiak,

Eudel eta Uema – eta euskalgintzako  
erakunde erreferentzialenak batera ager-  
tu baitira. Ematen du hainbestetan aipatu  
den bidegurutzetik ateratzeko aukera pa-  
regabea eskaini dezakeela, elkarlanaren  
bidetik jauzia egin daitekeela. Bideguru-  
tzetik ateratzeko nahia dago eta insti-  
tuzioen eta euskalgintzaren arteko lanki-  
detzan jauzia emateko sortzen ari diren  
aukerak baliatzen asmatu behar dugu.

Norbanakoak aktibatzeaz ari gara,  
baina **beste aktoreak ere subjektu akti-  
bo** izan behar dira ezinbestean, eta ho-  
riek ere aktibatu beharra dago: sektore  
guztietako enpresak eta era guztietako  
entitateak, sindikatuak, euskararen sus-  
tapenean ari garen erakundeak... bai eta  
administrazioa ere. **Denon inplikazioa**  
behar da, eta **ardurak ere partekatu** be-  
har dira.

Euskararen biziberritze prozesua sozia-  
la eta politikoa da. Ezaguna da, era be-  
rean, normalizazio-prozesua irudikatzen  
erabili ohi den lau zutabeen metafora:  
herri gogo indartsuarekin batera, corpus  
juridiko eta araugintza, plangintza eta  
baliabide egokiak behar dira Euskal Herri  
osoan.

Garaia da guztion artean konplizitatea  
eraikitzeke. Horrek lagunduko du ekime-  
nen arrakasta indartzen, martxan dauden  
edo etorriko diren bestelako proiektuen  
eraginkortasuna areagotzen eta sendo-  
tzen, eta balio erantsia eskainiko duten  
irtenbide berriak proposatzen. Aukera  
dugu hizkuntza ohi-turetan eragiteko eta  
espazio guztietan euskararen erabilera  
areagotzeko. Aukera dugu euskara erdi-  
gunerantz eramateko.

Euskaraldia 03

Iritsi da aktibatzeke aldia

Enpresarean Foroa 04

**SPRI** - Alexander Arriolak  
Industria 4.0 munduan  
barneratu gaitu

**EGAMASTER** - Egamaster  
kasuaren metodoa

Gasteizen, lehen hitzak  
balio handia du 06

#GasteizenBaiEuskarari  
Mintzotxiodromoa 08

Gasteizko gazteek euskaraz bizi  
eta lan egin nahi dute

**INATEC Ikasketa Zentroa** 09  
Gaurko erronka, biharko  
arrakasta

**Isabel Larrakoetxea** 10  
Ezagutza mailak gora egin badu  
ere, orain 20 urteko animoa,  
euskara bultzatzeko gogoia eta  
irrika ez ditut ikusten orain

**Mireia de Diego** 12  
Gaur egun udal askok obretako  
arduradun euskaldunak eskatzen  
dizkigute

**Bai Euskarari, ziurtagiri bat**  
**baino askoz gehiago** 14

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkarte  
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain  
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0524336196

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 673811048

Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea A.1.1.  
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa  
31014 Iruñea t. 673811048

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:  
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak:  
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman Komunikazioa.

Inprimatzailea: Leitzaran

Banaketa: Bai Euskarari Elkarte

Lege gordailua: SS-497-2010

[baieuskarari.eus](http://baieuskarari.eus)



# Euskaraldia

## *Iritsi da aktibatzeke aldia*



Azaroaren 23an Bilboko Arriaga Antzokian aurkeztu zen Euskaraldia, euskaraz hitz egin eta ulertzen duten herritarren arteko harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen egitasmoa. Ekimenaren aurkezpenean parte hartu zuten Euskaraldiaren sustatzaile diren 27 entitate eta erakundeetako ordezkariak. Horien artean dago Bai Euskarari Elkartea.

### Zer da Euskaraldia?

Herritar euskaltzaleak aktibatuta hizkuntza ohiturak aldatzea da *Euskaraldiaren* helburua. Bi mugarri izango ditu: batetik, euskal hiztunen hizkuntza ohituretan eragitea eta beren harreman sareetan euskara gehiago erabiltzea izango da 2018ko azaroa eta abendua bitartean egingo den *Euskaraldia* 11 egun euskaraz ekimenaren helburua. Bestetik, hizkuntzaren normalizazioaren ardura pertsonen eta entitateen artean partekatua denez, 2019an, mota guztietako entitateek euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko neurriak hartzea izango da helburua.



nez, euskaraz egiten dietenak ere). *Belarriprest*, berriz, gutxienez euskara ulertzen duten kideak dira, gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatzen dietenak.

Ekimena Euskal Herri osoan egingo den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak, eta tokiko inguru soziolinguistikora zein errealitatera moldatzeko modukoa izango da.

### Euskal hiztunen aktibazioa helburu: '11 egun euskaraz'

Aktibazioak martxan jartzea esan nahi du. Hizkuntzaren erabilerari lotutako kontzeptua da, euskaraz hitz egiten dakitenek edota euskara ulertzeko gaitasuna daukatenek euskara erabil dezaten lortu nahi baita. Hamaika egun horietan, 16 urtetik gorako herritarrak **Ahobizi** eta **Belarriprest** bihurtu nahi dira. *Ahobizi* ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiten dieten lagunak dira (baita ezezagunei lehen hitza, gutxie-

### Euskararen aktibazioa, elkarlanean

Azken hilabeteetan hizkuntzaren normalizazioaren bueltan ari diren erakundeek behin eta berriz nabarmendu dute elkarlanaren beharra, eta Euskaraldia elkarlan hori gauzatzeko aukera paregabea eskainiko du. ●

[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)

Ondorengoak dira Euskaraldiaren herriz gaindiko sustatzaileak:

- AEK
- Arabako Foru Aldundia
- Artez Euskara Zerbitzua
- Bai Euskarari Elkartea
- Berria taldea
- Bizkaiko Foru Aldundia
- EHU
- Elhuyar
- Elkar Fundazioa
- Emun
- Eudel
- Euskaltzaleen Topagunea
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Eusko Ikaskuntza
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Herri Elkargoa
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia
- Ikastolen Elkartea
- Irrien Lagunak
- Kontseilua
- Nafarroako Gobernua - Euskarabidea
- Soziolinguistika Klusterra
- Tokikom
- Uema
- UEU

# Alexander Arriolak Industria 4.0 munduan barneratu gaitu

Gizartean eta enpresa munduan horrenbeste entzuten ari garen Industria 4.0 gaiari buruz aritu zen azaroaren 22an Alexander Arriola, SPRI Taldeko zuzendari nagusia, Bai Euskarari Elkarteak antolaturiko Enpresarean Foroan.



Industria eta enpresa ezberdinetako profesionalak hurbildu ziren Gipuzkoako Parke Zientifiko eta Teknologikora egun bizi dugun laugarren iraultza eta paradigma digital berria ezagutzera. Bertan izan ziren, besteak beste, Mutualia, Ibermática, Kautenik, Beterri-Buruntzako Udalak, Manahmana, Elhuyar Aholkularitza eta Ceit-IK4ko ordezkariak.

Bruselatik etorri berri eta hurrengo egunean Kursaelean ospatu behar zen "Basque Industry 4.0" kongresura begira, Alexander Arriolak Alemania-

tik datorren iraultza aurkeztu zuen eta EAEk garatu duen estrategiaren ezauzgarriak azaldu zituen. Sei bat urte pasa dira Industria 4.0 kontzeptua munduan estreinakoz erabili zenetik. Orduetik hona, mundu osora zabaldu den kontzeptu honek hainbat deskribapen berenganatu ditu: laugarren industria-iraultza, fabrikazio aurreratua, industria adimenduna edota ziber-industria, besteak beste.

EAEen fokoa jarrita, Arriolak nabarmendu zuen lankidetzak, konexioak eta digitalizazioa beharrezkoak direla tamaina ezberdinetako enpresak garatu ahal izateko. Enpresa txiki eta ertainetan saiakera berezia egin behar dela nabarmendu zuen, iraultzara gehitzeko laguntza behar dutelako; horrela bada, SPRI Taldeko zuzendari nagusiak goraipatu zuen ezinbestekoak direla zuzendaritzaren inplikazioa eta langileen formazioa arlo teknologikoan. Gainera, enpresei laguntza eskaintzeko martxan duten "Basque Digital Innovation Hub" izeneko programa aurkeztu zuen.

Adibide moduan, Industria 4.0 aroan barneratu diren hiru enpresen adibideak ekarri zituen Enpresarean Foroa: Ibarria, Erreka eta Zumaia GKN.

Guztiekin baiezatu zuten teknologia berrien garrantzia eta horietara egokitzeko beharra, balio erantsia gehitzea helburu izanik.

Errobotizazioaren gaia ere atera zen foroan eta batzuek langileen etorkizuna zalantzan jartzen badute ere, Arriolak pertsonen indarrean eta beharrein sinesten duela adierazi zuen; izan ere, industriaren oinarrian pertsonak ezinbestekoak dira eta izango dira, baita etorkizunean ere.

Bukatzeko, euskara eta industriari buruz aritzeko tarte hartu zuen Arriolak, hizkuntzaren egoera aztertu eta aurrera begirako erronkak identifikatu nahian. SPRI Taldeko zuzendariak azaldu zuen industriako euskarazko hiztegi teknikoan hutsuneak daudela eta askotan zailtasunak dituztela industria alorreko harremanak euskaraz garatzeko. Puntu horretatik abiatuta, jakinarazi zuen euskarazko glosario bat prestatzen ari direla, industria 4.0rako jauzia euskaraz ere egin dezagun. ●



Bideoa eta argazkiak



www.enpresarean.eus

 /enpresarean

 @enpresarean



Enpresa eta profesional sarea,  
euskaraz

- Enpresa munduko albisteak
- Elkarlanerako komunitatea
- Azokari buruzko informazioa
- ...



Ziurtagiriaren  
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

# Egamaster kasuaren metodoa

**Oraingoan mundu mailako enpresa erreferente bat ezagutu nahi izan dugu Enpresarean Foroaren bitartez, Gasteizko EGAMASTER hain zuzen ere, mundu mailako arrakasta lortu duen enpresa euskalduna.**



Ez dugu edonola egin; Garmendiatarren etxera sartu gara eta Aner eta Iñaki Garmendia aurrez-aurre jarri ditugu Enpresarean Foroan. Arrakastaren sekretua ezagutzen saiatu gara, eta euren begiradetan ikusi dugu ilusioak eta grinak eraginda.

## Arrakastaren Gakoa

**I:** Edozein estrategiaren giltzarria ondo formatutako pertsona motibatuak dira. Enpresa asko ez dira aurrera ateratzen, proiektuarekin konprometitutako eta estrategiarekin behar bezala lerrokaturiko talde baten falta dute-lako. Ikuspegia egia bihurtzeko behar den balioa da.

**A:** Enpresa-kultura da balioa laburbiltzen duen kontzeptua: pertsonak, motibazioak, ideiak eta negozio plana. Enpresa kultura da horrek duen aktiborik garrantzitsuena eta imitatzea zailena dena. Beraz, EGAMASTERen arrakastaren gakoa, enpresaren kultura da.

**I:** EGAMASTERen balio nagusiak konpromisoa eta berrikuntza dira. Azken hau oso garrantzitsua da guretzat eta hori lortzeko hanka hauek zaintzen ditugu: pertsona taldea, internazionalizazioa, bezeroarekiko orientazioa eta berrikuntza irekia.

## EGAMASTER, zertan ezberdintzen da?

**I:** Berrikuntza eta konpromisoa dira

giltzarriak. EGAMASTER jaio zen egun beretik lehenetsi zen ahalik eta herrialde eta sektore gehienetan sartzea, horietako merkatu kuota batengatik lehiatzea baino.

Bestalde, EGAMASTERen argi dugu oso garrantzitsua dela eskola momentuan dagoen jendea barneratzea, enpresaren balioekin lerrokatzea errazagoa delako eta, bide horretan, barne promozioa lantzen dugu. Egungo arduradunen % 95a gurean praktikaldietan hasitakoa da.

## Euskal merkatutik mundura

**A:** Askotan esaten dute Euskal Herriko enpresak txikiegiak direla munduan jarduteko. Esango nuke sektore askotan ez dela derrigorrez abantaila, desabantaila baizik. Enpresa txiki edo ertain izateak berekin dakartza bezeroenganako gertutasuna, malgutasuna, aukerak aprobetxatzeko gaitasuna eta hornitzaileekiko harreman hobeak. Horixe da errealtatea, Euskal Herrian enpresa asko internazionalak gara eta munduan edozeinekin lehiatzeko gaitasuna dugu.

## Hizkuntzak kudeatzen

**I:** Argi dugu hizkuntza dela besteen nahiak ulertzeko biderik egokiena. Saiatzen gara, beti, bezeroaren hizkuntza erabiltzen. Hogei hizkuntza hitz egiten dira ehun pertsonako tal-

de batean. Bezeroak ez dira bakarrik kanpokoak, barne bezeroak ere baditugu; argi dugu Gasteizen euskararen egoera ez dela nahiko genukeena, baina saiatzen gara euskara sustatzen, barnean zein kanpoan.

**A:** Oso garrantzitsua da bezeroari ahal den heinean zerbitzua bere hizkuntzan eskaintzea; gertutasun eta konfiantza maila altuagoa lortzen baita. Guretzat euskara garrantzitsua da gure hizkuntza delako eta maite dugulako, eta bestetik, gure enpresa langileekiko erakargarri egiten duelako. Araban ez da erraza euskaraz lan egin dezakeen enpresa bat topatzea; hala ere, gure enpresan lortu dugu euskararen bidez erakargarriagoak izatea eta normaltasun osoz euskaraz lan egitea.

Epe motzari begiratzen dioten enpresek, normalean, ez diote euskarari garrantzirik ematen; epe luzera begiratzen diotenek, ordea, euskararen aldeko eta beste arlo batzuekitan ere aurrera egiteko jarrera izaten dute. Euskararen alde egiten duten enpresa horiekin bestelako arloetan ere elkar-lana sustatzeko eta esperientziak partekatzeko aukera izaten dugu. ●



Enpresarean Foroa  
osorik

## Gasteizen, lehen hitzak balio handia du

Azaroaren 9an #LehenHitzaEUS kanpaina abian jarri genuen, Gasteizko Udalarekin batera. Horren helburua da establezimendu eta kontsumitzaile gasteiztarrei bide berriak irekitzen laguntzea, euskara baliatu beharreko aldagai gisa harturik. Gasteizko euskararen mapa sortu dugu, Bai Euskarari Ziurtagiridunek osaturiko merkataritza plana, establezimenduen ikusgarritasuna sustatu eta euskarazko kontsumoa errazagoa izan dadin. Maparen protagonista batzuekin izan gara eta argi utzi digute euskarazko hitz bakoitzak balio handia duela Gasteizen.



#LehenHitzaEUS  
informazioa  
eta bideoa



### GOTZON MARTINEZ

#### MARTINEZ REMENTERIA FARMAZIA

“Lehenengo hitza euskaraz egitea oso garrantzitsua da, euskarazko harreman oso bat izateko lehenengo urratsa baita. Gasteizen abian jarri berri den kanpaina honetan sinesten dugu Martinez Rementeria Farmaziako lantaldean, gure inguruan aurrera egin dezagun eragina izango baitu; merkatariorik eta bezerook ere, urratsak emateko interesa dugu eta baliabideak ezinbestekoak zaizkigu.

Araban gero eta pertsona eta entitate gehiago ari da euskararen erabi-



lera sustatzen, arlo profesionalean, sozialean eta familiarean. Eta, noski, belaunaldi berriak euskaldunak izatea nahi badugu, bide honetan jarraitu behar dugu, euskara gure egunerokoan pizten. Eguneroko horretan, merka-

taritzak eta kontsumoak berebiziko garrantzia dute eta ohartu behar gara euskarak balioa eranstean diola. Izan ere, alde batetik, kontsumitzaileok erosketak euskaraz egin ahal izatea eskertzen dugu, gertutasuna eta konfiantza eskaintzen dizkigulako; bestetik, merkatariontzat ere, bezeroen fidelizazioan eragin handia du.

Farmaziaren kasuan, euskara sustatzeko lanean ari gara eta emaitzak argiak dira. Bidean, Bai Euskarari Elkarrekin pausoak ematen lagundu eta baliabideak eskaintzen dizkigu. Etorkizunera begira, urratsak ematen jarraitu nahi dugu, euskararen sustapenak merezi duela sinetsita baikaude”

**LANsarean.EUS**  
LEHEN AUKERA, EUSKARA. LAN AUKERA, EUSKARAZ.



f t in  
@lansarean

Ane Fernandez - Berria



Nik beti garbi izan dut nire ibilbide profesionala ere euskaraz garatu nahi nuela eta horretarako lansarean.eus atari ezinbestekoa iruditzen zait

Iraitz Perez de Galdarazena - Oreak IT



Konturatu ginen Lansarean ataria eraginkorra zela eta curriculum ugari jasotzen genituela.

**bai**  
euskarari  
Ziurtagiridunen  
Elkartea



**IÑIGO DE MARCOS**  
**TILIKA GASTEIZ**

"Kanpainaren berri izan genuenean euskara sustatzeko aukera gisa hartu genuen, merkatarioi euskaraz hazten lagunduko digun proiektu moduan. Ttilika arropa denda Gasteizko Euskararen Mapan kokatzea oso positiboa da negozioarentzat; izan ere, geroz eta euskaldun gehiago dago Gasteizen eta, horientzat batez ere, erreferenteak izango gara plano hori osatzen dugun euskal merkatariorik. Araban, euskaldun berri asko dago eta pozgarria da ikustea Gasteizen euskara gero eta presenteago dagoela.

2013an denda ireki genuenetik argazkia aldatzen ari da, poliki-poliki, merkatarien zein kontsumitzaileen aldetik. Prozesu horretan, Bai Euskarari Elkartek euskara egunerokotasunean txertatzen laguntzen digu, pausoz-pauso, egoeraren arabera helburuak proposatuz. Izandako ibilbideari begiratuta, euskararen etorkizuna modu positiboan irudikatzen dut. Ttilikaren hurrengo urratsa izango da, beste saltokiekin batera, euskararen presentzia areagotzea eta bezeroekiko harremanak euskaraz izatea".



**ISABEL ETXABE**  
**ETXABE HARATEGIA**

"Gasteizen, negozioa ireki genuenetik, euskararen sustapenean murgilduta ibili gara, gure bezeroei zerbitzuak euskaraz eskaintzeko asmoarekin. Lehenengoetarikoak izan ginen zerbitzua elebitan eskaintzen eta horrelako ekimenak oso aberasgarriak iruditu izan zaizkigu beti. Adibidez, Gasteizko Euskararen Mapan harategia kokatzeak abantaila ugari dakarkigu: jendeak ezagutzen gaitu eta erreferentzialtasuna irabazi dugu. Izan ere, gero eta euskaldun gehiago dago Gasteizen, erosketak euskaraz egin nahi dituztenak. Gaur, urteak pasa ondoren, esan dezakegu bezero berri asko irabazi ditugula zerbitzuak euskaraz eskaintzeagatik.

Araba eta Gasteizko oraingo egoerak ez du zerikusirik orain dela 35 urtekoarekin; euskararen normalizazioa gero eta presenteago dago gure egunerokotasunean, harategian bertan. Euskaraz eskatzen diguten bezero asko ditugu, gurekin hitz egiten eroso daudenak eta, hizkuntza maila bat izan edo beste, lasaitasunetik eta konfiantzatik lehen hitza euskaraz egiten dutenak. Negozio bezala, euskaraz ezberdintzen gaitu, bezeroarekin harreman eta lotura berezia garatzen dugulako.

Hori dena kontutan izanik, hasieratik argi izan genuen Bai Euskarari Elkartearen komunitatearen parte izan nahi genuela, gure zerbitzua eta bezeroekiko harremana hobetzen jarraitzeko".



**GORKA PEREZ DE MENDIOLA**  
**HUMEDAL INFORMATIK**

"Bai Euskarari Elkartearekin batera aurrerapausoak ematen ari gara, gure langileen artean euskararen erabilera areagotzeko eta bezeroarekiko harremanean ere hizkuntza aukera emateko. Gasteizko euskararen mapan parte hartzen dugu eta "Lehen Hitzak Balio Handia du" kanpainak jende gehiagorengana iristeko aukera emango digula uste dugu. Gure helburua da euskaraz lan egiten eta bizi garenon arteko sarea osatzea eta euskarak duen balioa modu nabarmenean erakustea.

Arabian urratsak ematen ari gara euskararen normalizazioan. Euskaldunen kopurua, kanpainan adierazi dugun bezala, hirukoiztu egin da 30 urtetan eta hori pozik egoteko datua da. Hori bai, lanean jarraitu behar dugu, etorkizuna argitzen jarraitzeko eta aukera interesgarriagoak sortzeko.

Argi dugu Euskal Herrian euskaraz kontsumitu beharko genukeela eta sinesten dugu egun hori iritsiko dela, Gasteizen ere. Azken finean, kontsumitzailearentzat eta merkatariaientzat, euskara balioa da".



**TALLERES**  
**MITXELENA, S.COOP.**

Eziago poligonoa, 21 • Hernani, Gipuzkoa  
Tel.: 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816  
info@talleresmitxelena.com  
www.talleresmitxelena.com

# Gasteizko gazteek euskaraz bizi eta lan egin nahi dute

Euskararen asteen, Bai Euskarari Elkartek antolaturiko #GasteizenBaiEuskarari Mintxotxiodromoan, euskararen egoeraz hitz egiteko elkartu ziren ikasleak

Euskararen egunaren harira eta Gasteizko euskararen asteen kokatuta, Bai Euskarari Elkartek Mintxotxiodromoa antolatu du Gasteizko Udalaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Berritzegunearen lankidetzari esker. Horren helburua da **lanbide heziketa eta batxilergoko ikasleei euskararen egoeraz eta etorkizunaz hitz egiteko eta sare sozialetan iritziak partekatze**ko aukera ematea.

Oihaneder Euskararen Etxera gerturatu ziren azaroaren 29an Egibide, Presentación de María, Ostalaritza Gamarra eta Karmendalarrak ikastetxeetako gazteak euskarak euren egunerokoan duen presentzia eta balioari buruz mintzatze-ko. Saioan hiru gai landu zituzten: **euskararen egoera hirian, ikasketak eta lana eta, azkenik, kontsumo-ohiturak (Gasteizen piztu berri den #LehenHitzaEUS kanpainari erreferentzia eginez)**. Gainera, Kidam magoaren trikimailuek aho zabalik utzi zuten bat baino gehiago. Saioa bukatzeko, besteak beste, D. Alaves eta Baskoniarako sarrerak, liburuak eta kamiseta batzuk zozketatu ziren.

Rober Gutiérrezek, Bai Euskarari Elkarteko zuzendariak, egin zituen aurkezpenak. Zuzendariak nabarmendu nahi izan zuen **“Bai Euskarari, ziurtagiri bat baino askoz gehiago dela”**, eta elkarrekin martxan dituen proiektuak aurkeztu zizkien gazte eta irakasleei: #BaiPraktikaEgokia, enpresetan euskararen erabilera sustatzen hasteko gida; enpresen hizkuntza-egoera neurtzeko autodiagnostikorako aplikazioa; euskaraz bizi eta lan egiteko lagungarriak diren baliabideak; Lansarean.eus lan-ataria; Enpresarean, enpresa eta profesionalen sarea; Lanabes, Araban Euskara Lanean egitasmoa; eta, azkenik, Bai Euskarari Ziurtagiria, enpresa, saltoki eta era guztietako entitateen euskara mailaren bereizgarria.

Ikasleak launaka eseri ziren euskaraz hitz egin, jende berria ezagutu eta biharko egunean zein hizkuntzatan bizi eta lan egin nahi duten hausnartzeko. Orokorrean, nahiz eta lagunartean euskaraz egitea kosta egiten zaiela onartu, **hizkuntza zaindu eta maitatzeko beharra ikusten dutela azaldu zuten mintxotxiodromoko protagonistek.** ●

## ANDERE GOROSPE

Ostalaritza Gamarra

“Euskara bai, gure hizkuntza delako, badakigulako eta baliatu behar dugulako, desagertu ez dadin”.



## IMANOL COSMES

Egibide Arriaga

“Azken urte hauetan konturatu naiz kaletik euskaraz gehiago hitz egiten dela eta nire adineko jendeak ere gehiago erabiltzen duela; nik uste dut oso inportantea dela. Kulturalki oso garrantzitsua da euskaraz egitea, batez ere, hemen bizi bazara”.

## MAITE BERNOLA

Presentación de María

“Polita izango litzateke denda batera sartzerakoan, “hola, ¿cómo estás?” esan beharrean, “kaixo, zer moduz doa eguna?” esatea. Euskarak abantailak ematen dizkigu bestelako hizkuntzak ikasteko. Gurea da eta ezberdina da. Ezberdintzen gaitu”.



## GARAZI ARBERAS

Egibide Jesús Obrero

“Saiaitu beharko ginatke euskaraz gehiago hitz egiten, gure hizkuntza delako eta gustatzen zaigulako. Betidanik hitz egin izan badugu ikastolan, zergatik ez kanpoan, gure egunerokoan?”

## ANGEL LAMARIANO

Ostalaritza Gamarra

“Egiten duzun lehenengo hitzak baldintzatuko du gerora erabiliko duzun hizkuntza.

Nik lagunekin euskaraz hitz egiten dut eta dendetan edo administrazioan beti saiatzen naiz euskaraz egiten. Ez nuke denda bat hautatuko euskaraz egiten didatelako, baina denda batera sartuko banintz eta “kaixo” edo “agur” esan beharrean, “hola” edo “adiós” nabarmen batekin erantzungo balidate, ez nintzateke hara bueltatuko”.



## HEGOI SANCHEZ

Presentación de María

“Euskara asko gustatzen zait eta gustatuko litzaidake presenteago egotea”.



Bideoa eta argazkiak:

# INATEC plana: gaurko erronka, biharko arrakasta

‘Euskararen Bidean’ mailarekin hasi eta, jarraibide egokien bidez,  
‘Zerbitzua eta Lana Euskaraz’ eskaintzera iritsiko da Ikasketa Zentroa

Gero eta entitate gehiago dira euskara bereizgarri bezala baliatzen ari direnak, hizkuntzak balioa eranstean diela jakitun. Egun, 1356 dira euskararen erabilera sustatzeko prozesuan barneraturik daudenak, Bai Euskarari komunitatean, bakoitzaren euskara mailara egokitzen den ziurtagiriarekin.

Horien artean, badaude eredugarritzat jotzen ditugun entitate, saltoki edo-eta enpresak, euskara barneratzeko praktika onak garatu dituztenak (esate baterako, #BaiPraktikaEgokia gidan jasotzen direnak), eta ondoriozko arrakasta ikusi dutenak.

Horietako bat dugu INATEC, 1999. urtean Bilbon jaio eta formaziora bideraturiko Ikasketa Zentroa. Izan ere, bertako ordezkariak adierazi diguten bezala, erakundean beti izan dute argi euskararen presentzia sustatzea garrantzitsua dela eta horretarako, helburuak definitu eta ekintza plana behar dutela. Hori horrela izanik, 2016. urtean Bai Euskarari Elkartearekin lanean hasi ziren, “Euskararen Bidean” maila abiapuntutzat harturik eta 46 helburu adostu zituzten urtebeteko epean burutzeko. Horri esker, hasieratik, irudi korporatiboa, barne eta kanpo harremanak edo-eta hizkuntza gaitasuna euskaraz garatzeko bidea egiten hasi ziren. “INATEC-eko 2016-2019 Euskara Plana” sortu eta martxan jarri zuten, helburu argi batekin: zerbitzu guztiak euskaraz eskaini ahal izatea. Urtebete beranduago, lan handia egin eta praktika egokiak jarraiturik, ezarritako helburuetatik 32 lortu eta “Zerbitzua Euskaraz” ziurtagiria eskuratu dute INATEC-eko lagunek. Zorionak!

Aurrerapauso garrantzitsu horren ostean, besteak beste, webgunea eta dokumentazioa bi elean edukitzea lortu dute; baina, haien iritzi, aldaketarik nabariena izan da langileek euskararekiko duten jarrera, orain, handiagoa baita horren garrantziarekiko kontzientzia.



Ikastaro asko euskaraz ematen dituzte, euskara da INATEC-eko langile eta ikasle askoren lehen hizkuntza; bide horretan, argi dute hizkuntza baliatu behar dutela, zerbitzuaren kalitatea areagotzeko eta bezero eta langileen arteko harremanak zaintzeko.

Etorkizunera begira, Bai Euskarari Elkartearekin gogoz jarraituko dute lanean, “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” ziurtagiria lortzeko. Gaurko erronka, biharko arrakasta. ●

**GURE KULTURAREN  
KOLORE GUZTIAK**

**LEITZARAN**  
grafikak

Gudarien Hiribidea 29  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
Tf: 943 30 35 10  
[www.leitzaran.eus](http://www.leitzaran.eus)  
[grafikak@leitzaran.eus](mailto:grafikak@leitzaran.eus)

Historia ikasten ari zela, aitaren enpresan egin zituen praktikak eta unibertsitate ikasketak amaituta, lanean hasi zen bertan. 22 urte besterik ez zituen, ekonomiako linea kurrikularretik buruturiko historia ikasketak, lan arriskuen gaineko Master bat eta lan egiteko sekulako go-goa. “Eraikuntza arloa gizonezkoena zen eta da, formazio gutxiko pertsona asko dago, obrako gizonak, eta hasieran ez zidaten bizimodua erraztu”. Tinko eta sendo aurrera egin zuen Mireia de Diegok eta 2004tik Excavaciones de Diego enpresaren zuzendaria da. Gaur egun Bizkaiko Induskarien Elkarteko eta Eraikune Eraikuntza Klusterreko presidentea ere bada. Era berean, 2014an Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarateak saria eman zion.

## Mireia de Diego Excavaciones de Diego enpresako zuzendaria

*“Gaur egun udal askok obretako arduradun euskaldunak eskatzen dizkigute”*

**Bat baino gehiago harritu egingo da, ezta? Emakume bat Induskarien Elkarteko presidente eta Indusketa enpresa bateko zuzendari nagusi...**

Tamalez bai, halaxe da. Poliki bada ere, aldaketak ematen ari dira gure arloan, baina asko dago egiteko. Esaterako, obra batera gerturatzen zarenean, azpiegitura guztiak (aldagelak, komunak...) gizonezkoenak dira eta ez dauka emakumeentzat prestatuta. Hori aldatzen hasi beharra dago. Bizkaiko Induskarien Elkarteko presidente gisa eta gure enpresaren zuzendari lez, eraikuntzako lan-hitzarmenean emakumeak aintzat hartzeko eskatu beharra dago.

**Nolakoa da zuen enpresa? Zeintzuk dira Excavaciones de Diego-ren ezaugarriak?**

Emakume bat enpresaren buruan egoteak bereiztu egiten gaitu. Beste guztien artean desberdintzen gaitu. Induskarien arlo honetan ia ez dago

emakumerik, are gutxiago zuzendaritza ardurak dituztenak. Gainera, gure teknikari asko ere emakumeak dira eta horrek ere bereizten gaitu.

**2004tik enpresaren zuzendaritza daramazu. Ordutik, zein izan da bilakaera?**

Gaur egun, 30 langile inguru gara eta 27 hondeatzaile ditugu. Bereziki, obra zibilean egiten dugu lan; obra publikoan ur zikloak egiten ditugu, irisgarritasun proiektuak, birsorkuntza urbanistikoak... Eta proiektuei berme osoz erantzuteko lan-talde sendoa dugu: teknikariak, ingeniariak, arkitektoak eta obrako pertsonal prestatua. Guztira 30 bagara ere, zeharka, beste 20 lanpostu sortzen ditugu proiektu konkretuetan murgiltzen garenean.

**Bizkaia, Gipuzkoa, Araba... Euskaral Autonomia Erkidegoa da zuen lan-eremua.**

**“Emakume bat enpresaren buruan egoteak bereiztu egiten gaitu. Beste guztien artean desberdintzen gaitu”**

Merkatua hazi egin da azken urteotan eta obra publikoak ere goranzko joera dakar. Paradoxikoki, pertsonak falta dira. Peoiak behar izaten ditugu, ez soilik pertsona kualifikatuak. Gaur egun, samurragoa da ingeniari bat aurkitzea, peoi edo makinista bat kontratatzea baino.

Merkatuari dagokionez, gaur bertan udalek inbertsioak egiteko zorra eduki dezaketela argitaratu da eta horiexek dira gure bezero handienak. Eraikuntza enpresa handiek Abiadura Handiko Trenaren lanak egin beharko dituzte eta gainerako obrak gurea bezalako enpresa txikiagoentzat izango dira.



Gure enpresak Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban egiten du lan. Erkidego osoan gaude: Laudio, Oñati, Zizurkil, Hondarribia, Bedia, Galdakao... une honetan toki horietan guztietan ari gara lanak burutzen.

**Elkarlanean sinisten duzu. Sinergiak gogoko dituzu eta zure enpresa kokatu duzu elkarte ezberdinetan, era ikusgarrian.**

26 urterekin hartu nuen enpresa. 41 urte ditut orain eta, bai, enpresa eramateko modua desberdina da orain. Subkontrata izatetik kontrata izatera pasatu gara. Egia da obren inguruan ez dudala ideia handirik, baina enpresa politikaz, kontaktuez, jarreraz, harremanez eta aberrez ezagutza eta formazioa dauzkat, eta ezagutzen ditut nolakoak diren administrazioarekiko harremanak. Era berean, elkarlanean sinisten dut eta uste dut oso garrantzitsua dela gurea bezalako enpresentzat eta baita Euskal Herriarentzat ere.

**Induskarien elkarte, Eraikune eraikuntza Klusterra, Emakume Enpresarioen Elkarte...**

Horietan guztietan bisible egotea ezinbestekoa da guretzat. Sinergiak sustatu behar ditugu, gure arteko aliantzak... Konpetentziarekin batera joan beharra daukagu proiektu handiei aurre egiteko. Eraikune Klusterrean ere berrikuntzaz eta merkatuaz informazio ezin hobea partekatzen dugu, eta gure sektorea norantz doan elkarrekin hausnartzen dugu.

**Eta euskararen egoera nolakoa da zuen arloan?**

Euskara gero eta presenteago dago eraikuntzaren esparruan. Obra zibilean ari garenek, esaterako, baldintza-agiak eta administrazio eskakizunak euskaraz jasotzen ditugu... Era berean, udal askok obretako arduradun euskaldunak eskatzen dizkigute. Alegia, gure obra-burua edo arduraduna euskalduna izatea eskatzen dute. Eta batzuetan, baldintza-agiri administratiboetan udalek ez badute euskararen eskakizuna sartzen, guk geuk jartzen dugu hobekuntza moduan.

**Seinaletika ikuspegitik ere bilakae-ra nabarmena izan da, ezta?**

Seinaletikan ere elebidunak gara, arlo guztietan, gure kartelak euskaraz eta gaztelaniaz daude. Era berean, berrikuntza arloan ere, Induskari Elkarteko presidente egin nindutenean euskarazko ziurtagiria eskuratzea proposatu nuen, eta berdintasuna bultzatzeko ziurtagiria ere txertatu genuen, Emakunderena. Klusterrean ere bultzatzen ari gara euskararen erabilera. Gainera, enpresarioen elkartearen euskararen sustapena ezinbestekoa da. ●

**“Euskara gero eta presenteago dago eraikuntzaren esparruan. Berrikuntza arloan ere, Induskari Elkarteko presidente egin nindutenean euskarazko ziurtagiria eskuratzea proposatu nuen”**

## Isabel Larrakoetxea Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordeko kidea eta Elkargoko Euskal Kultur Batzordeko koordinatzailea

*“Ezagutza mailak gora egin badu ere, orain 20 urteko animoa, euskara bultzatzeko gogoia eta irrika ez ditut ikusten orain”*

Orozkoarra jaiotzez, txikitatik erakutsi izan du edozein arlotan bide luzea egiteko gaitasuna duela. Pasionisten ordenean, aitonaren osabak 50 urte egin zituenean, berak ospakizun mezan organoa jo zuen, Angelis meza osoa. Soilik 9 urte zituen. Musikaren bidetik, ordea, ez zuen jo, piano karrera eduki arren, eta ingenieritza ikasketak egin zituen Bilbon. Gaur egun Isabel Larrakoetxea emakume errespetatua da ingeniartzaren arloan. Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordeko kide eta Elkargoko Euskal Kultur Batzordeko koordinatzailea da.

### **Nolakoa da Isabel Larrakoetxea? Nola aurkeztuko zenuke zure burua?**

72 urte bete dituen emakume langilea naizela esango nuke. Badut konfiantza nigan eta uste dut egoera ezberdinetara egokitzeko baliabide edo errekursoak ditudala. Bilbon, Donostian eta Madrilen egin nituen ikasketak eta zortzi urtez barneko ikasle moduan egon nintzen. Hain justu ere, barneko ikasle gisa egoteak aukera ugari eskaini zizkidan ikasketetan buru belarri aritzeko, oso modu metodologikoan gainera. Batxilergotik Ingeniaritza ikas-

ketak egitera pasa nintzen, Bilbon hasi eta Madrilen amaitu nituenak.

### **Emakume gutxi egongo ziren garai hartan ingeniartza ikasketak egiten.**

Bilbon amaitu izan banitu ikasketak, seigarrena izango nintzatekeen. Madrilen, berriz, baziren gehiago.

### **Ikasketak amaitu eta berehala hasi zinen lanean enpresan.**

Halaxe da, bai, bulego teknikoan lehenengo eta ondoren kalitate kontrolean, moldeetan gomazko piezak egiten zituen enpresa batean, kautxuaren injek-

zioan espezialistak ginen, Zamudion. Enpresa arloa, ordea, bigarren semearen haurdun geratu nintzenean utzi egin nuen. Gero, hirugarren semea ere etorri zen eta denboraldi luzez lan mundutik kanpo izan nintzen.

### **Eta nolakoa izan zen itzulera?**

Txikienak bost urte zituenean irakaskuntza arlora bideratu nuen nire ibilbide profesionala. Euskaraz alfabetatu nintzen, eta 1980-81 ikasturtean sartu nintzen eskolak ematera, 9-10 urteko neska-mutikoekin lehenengo, matematikak erakusten Lauro Ikastolan, Loioan. Ondoren, 13-14 urteko gazteekin ere



egon nintzen. Ingeniaritza titulua neukan, baina Lauro ikastolan beste ikasketa batzuk hobesten zituzten, eta handik Algortako San Nikolasera joan nintzen. Gerora, Aresti ikastolan ere aritu nintzen, eta handik Ingeniaritza Eskolara.

### **EHUko Ingeniaritza Eskola zure etxea da.**

Ingeniaritza Eskolan 32 urtez egon naiz, horietatik 30 urte euskaraz irakasten. Hasieratik ikusi nuen etorkizuna euskarazko ikasgai eta ikasleengan zegoela. Hala, 1987-1988 ikasturtean, Marrazketa Teknikoko ikasgaia euskaraz ematen hasi ginen. Eta, apurka-apurka, joan gara sartzen euskara Ingeniaritza Eskolan. Badira urte asko gai tronkalak eta hautazkoak euskaraz eskaintzen direla. Dударik gabe, azken urteotako bilakaera eta aldaketa handiak izan dira.

### **Zer gehiago aldatu da irakaskuntzan?**

Gaur egun ikasle gutxiago dago ikasgela bakoitzean. Era berean, ordenagailuak, irakaskuntza ere, iraultza ekarri du. Agian, asko ez dira nirekin bat etorriko, baina uste dut garai bateko ikasketak gaur egungoak baino zorrotzagoak zirela.

### **Eta ikerketa?**

Hasieran, unibertsitatean ez genuen gehiegi ikertzen, estatistika kontuak eta bai... baina beste arlo batzuetan ikerketa gutxi egiten zen. Hala ere, gure lanak aurkezten genituen Bartzelonan edo Madrilen. Urte batzuk geroago, ikerketak gorakada handia izan du.

## **Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargoa**

### **Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargoa 1949an eratu zen. Zein da gaur egun eskaintzen duen zerbitzua?**

Gaur egun, askotariko zerbitzuak eskaintzen ditugu. Zerbitzu profesionalen barruan, elkargokidetze eta esperientzia profesionalaren ziurtagiriak bana-



tu, Erantzukizun Zibil Profesionalaren Aseguramenduak eta Mutualitatea eskaini, lan profesionalen tramitazioak egin edota aholkularitza profesional eta juridikoa ematen dugu.

Bestalde, enpleguaren arloan, lan poltsa bat dugu, eta esaterako, 2016an 350 lan-eskaintza baino gehiago egin genituen. Azkenik, aisia, kultura eta gizarte ekintza ugari eskaintzen ditugu, eta bertan kokatzen da 1976an sortutako Euskal Kultur Batzordearen eginkizuna.

### **Elkargokideei formazio eskaintza ere zuen egitekoen barne dago.**

Azken hamar urteotan elkargokideen prestakuntza asko zaintzen ari gara. Aurten, azaroan egin dugun batzordean aurkeztutako datuen arabera, 21 ikastaro espezifiko egin dira eta 207 pertsona formatu dira. Gainera, 12 hitzaldi antolatu ditugu. Kideentzat ere antolatu dira kurtsoak, eta 205 lagunek parte hartu dute. Halaber, lantalde berriak sortu dira, arlo ezberdinetan proiektuak aurrera eramateko helburuarekin.

### **Zein da emakumeek ingeniari-tza arloan bizitako bilakaera?**

Ingeniaritza Eskolan % 30 - % 32 inguru dira emakumeak eta esan daiteke azken hamar urteotan ez dela sekulako bilakaerarik egon. Sentsazioa dut gradu errazagoak aukeratzen dituztela bai gizonek zein emakumeek. Gure Elkargoa, une honetan, 3.300 kide inguru ditu, eta horietatik %10 emakumeak gara.

### **Eta euskararen bilakaera?**

Elkargoko Euskara Batzordeak hainbat ekintza antolatzen ditu urtero elkargokideentzat eta haien senideentzat: Mazarredotik aldizkaria, euskarazko hitzaldiak, euskal idazlanen lehiaketa... Horrez gain, gure elkargokideei Master Amaierako Proiektuak euskaraz aurkezteagatik diru-laguntzak ematen dizkiegu. Komunikazio korporatiboari dagokionez, guztia egiten dugu bi hizkuntzatan. Edozelan ere, kritikoa izan nahi dut euskararen erabilerari dagokionez. Ezagutza mailak gora egin badu ere, duela 20 urteko animoa, euskara bultzatzeko gogoia eta irrika ez ditut ikusten gaur. Orokorrean, inplikazioa txikiagoa da, gizarteko arlo guztietan, eta gurean ere euskarak ez du behar beste gora egin. ●

# *Bai Euskarari, ziurtagiri bat baino askoz gehiago*

Bai Euskarari Elkartearen 10. urteurrena ospatzen ari gara. 2007an sortu zen elkarte, zazpi urte lehenago Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, lan munduaren euskalduntzean eragiteko, abian jarritako Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektua indartzeko, elkarlanaren bidez gidatzeko, zabaltzeko eta sendotzeko, eta gizartearen aurrean erreferentziala izateko xedearekin.



Azkar igaro zaizkigu hamar urte, eta hamar baino hamaika bizipen ditugu nabarmentzeko, hamaika ekintza eta proiektu burutu ditugulako.

2007an Bai Euskarari Elkartearen sorrera ospatzeko Donostiako Kursaalaren izan genuen ekitaldian nabarmendu genuen elkarlanaren bidez garatu nahi genuela proiektua, "urrats bat elkarlanean, denon artean egingo dugulako Bai Euskarari Ziurtagiria" esan genuen ekitaldi hartan. Elkarlana da proiektu

honen oinarria sorreratik beretik eta, bistan da, denon inplikazioari eta ekarpenari esker pixkanaka hazi dela, eta jatorrizko proiektutik harago joatea lortu dugula. Gaur egun, Bai Euskarari ziurtagiri bat baino askoz gehiago da. Gure komunitatea sendotzeko ari gara lanean, baliabideak etengabe sortzen eta eguneratzen saiatzen gara... Eta ez hori bakarrik; gero eta eragin handiagoa hartzen ari diren beste zenbait proiektu ere ari gara elikatzen:

Enpresarean, Lanabes eta Lansarean lan-ataria, besteak beste.

Alor sozioekonomikoan euskaraz normaltasunez aritzeko baliabideak sortu eta garatu behar dira, ezinbesteko baldintza baita, pertsonak eta espazioak euskararekin betetzeaz gain, baliabideak eta tresnak ere euskaraz egotea eta horiek baliatzea. Testuiguru horretan kokatu behar da Bai Euskarariren ekarpena. ●

**Bai Euskarari Ziurtagiria, Enpresarean, Lansarean, Lanabes....**  
**Hazten ari diren proiektuak, eraginkortasuna bilatzen duten eta elkar-eragitean oinarrituta dauden egitasmoak; elkarlanean sustatuta, arrakastatsu bilakatzen ditugunak.**



### **Enpresarean. Enpresen eta profesionalen sarea**

Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi da, 2012tik, Enpresarean proiektuaren bidez. Bi urtean behin antolatzen den Enpresarean azoka, Enpresarean Foroa eta Enpresarean.eus webgunea dira egitasmoaren ardatz. Gipuzkoako Foru Aldundia proiektuaren babesle nagusia da.



### **Bai Euskarari Ziurtagiria**

Euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak identifikatzen eta sustatzen ari dira Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez. Horrekin batera, gainera, Bai Euskarari Elkartek tresna eta baliabide ugari jartzen du entitate guztien esku, esate baterako, hizkuntza-egoera ezagutzeko baliagarria den auto-diagnostikorako aplikazioa, edo-eta praktika egokiak eta eredugarrien gida.

### **LANSAREAN lan-ataria**

Bai Euskarari Elkartearen baliabideetako bat da Lansarean lan-ataria, euskara hutsez dagoen Euskal Herri osorako lan-atari bakarra. 2014an martxan jarritako lan-ataria berritu da, diseinu eta funtzionalitate berriak erantsiz, enpresen eta hautagaien beharrei erantzuteko. Laster, gainera, aplikazioa gizarteratuko da.



### **LANABES, Araban Euskara lanean**

Proiektu honen bidez Arabako alor sozioekonomikoan zeresana duten enpresen eta entitateen sarea ehundu nahi da. Helburu nagusia da Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzea eta handitzea. Talde eragilean, izaera desberdineko entitateak ari gara parte hartzen (Arabako Foru Aldundia, SEA - Arabako Enpresariak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbara, Merkataritza Federazioa, Oreka IT, Electra Vitoria, Laneki eta Bai Euskarari Elkartea) eta proposamenak adosten ari gara lankidetzan bideratzeko.

Lanabes egitasmoaren barruan txertatu da Lazarraga Sarien proiektua, Bai Euskararik eta Arabako Foru Aldundiak 2010etik elkarlanean kudeatutako sariketa.

# Zorionak! 2018an ere #BaiEuskarari

## Ziurtagiri bat baino askoz gehiago

### Urte berri on!

ALOR SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA ERRAZTEKO BALIABIDEAK



#BaiPraktikaEgokia  
Euskaraz lan  
egiteko 20 jarraibide



Autodiagnostikoa



Baliabideak



Diru-laguntzak



Lansarean.eus  
lan-ataria



Enpresarean.eus



Lanabes  
Araban  
euskara  
lanean



Bai  
Euskarari  
Ziurtagiria



Bai Euskarari  
komunitatea



[baieuskarari.eus](http://baieuskarari.eus)



Lan eta bizi euskaraz


Bai Euskarari Elkarteak eskaintzen du



#### Ziurtagiria

Euskara erabili eta  
sustatzen duten  
enpresa, saltoki  
eta entitateak  
identifikatzeko ikurra.

[baieuskarari.eus](http://baieuskarari.eus)



#### Enpresarean

Euskaraz lan egin  
nahi duten enpresen  
eta profesionalen  
arteko elkarlana  
sustatzeko sarea.

[enpresarean.eus](http://enpresarean.eus)

LANSAREAN  
bilalari

#### Lansarean

Enpresa edo-eta  
profesional euskal-  
dunak ezagutzeko  
aukera errazten  
duen lan-ataria.

[lansarean.eus](http://lansarean.eus)